

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak 445.000 euro eman dizkie tokiko erakunde eta partzuergoei turismoa sustatzeko

*Diru-laguntzak partzuergo eta elkarteei zuzendurikoak ziren batez ere*

Martes, 24 de junio de 2014

Turismo eta Merkataritza Zuzendaritzak ebatzi du dagoeneko [turismoa garatzeko ekintzetarako elkarte, tokiko erakunde eta partzuergoentzako laguntzen](#) deialdia. Deialdi horretarako, 2013ko urriaren 1etik 2014ko irailaren 30era egindako ekintzak hartu dira kontuan. Horrez gain, [marketin-jardueretarako diru-laguntzak](#) ere ebatzi dira.

Lehen deialdian 270.000 euro banatu dira guztira diru-laguntza gisa, eta proiektu bakoitzerako aurkeztutako aurrekontuaren % 10 eta % 80 artean finantzatu da horren bidez.

Turismo-elkartek gehienez % 80 eskura zezaketen, proiektuaren arabera 30.000 edo 40.000 euroko muga izanik. Tokiko erakundeek eta partzuergoek % 10 eta % 80 arteko gehienezko zenbatekoa lor zezaketen, eta hainbat muga aplikatu dira, deialdian ezarritako zenbait kontzepturen arabera.

Nafarroan egoitza duten eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen [Nafarroako Turismo Erregistroan](#) erregistratutako elkarteek eskatu ahal izan dituzte laguntza horiek. Turismoa sustatzea izan behar dute helburu edo turismoari loturiko proiektu bat gauzatu behar dute. Haien eragin-eremuan jarduera turistikoak antolatzen dituzten tokiko erakundeei eta egoitza Nafarroan daukaten partzuergo turistikoiei ere zuzenduriko deialdia izan da.

Honako hauek dira elkarte turistikoaren inguruko datuak: 14 elkartetako 18 jarduera aurkeztu dira; horietatik 16k jaso dute diru-laguntza, guztira 100.000 euro.

Partzuergoen kasuan, partzuergoen kudeaketa finantzatzeko 6 eskaera egin dira, eta 110.000 euroko diru-laguntza eman zaie guztira. Partzuergoetako jardueretarako 44 eskaera ere aurkeztu dira, eta horietatik 43 onartu. Guztira 154.475,85 euroko diru-laguntza jaso dute.

Tokiko erakundeek 8 udaletako 13 jarduera aurkeztu dituzte. 11 onartu dira eta denera 9.847,59 euro eman zaie.

### Turismoaren marketina egiteko laguntzak

Turismo Zuzendaritza Nagusiak 175.054 euroko diru-laguntza ematea erabaki du azoka eta aurkezpen turistikoetara joatea, hedapenerako materiala, publizitate-kanpainak, webguneak eta sarean marketin-ekintzak egitea, marketin alorreko prestakuntza-ekintzak eta

sektoreko teknologia berriak eta berrikuntza bezalako proiektuetarako.

Banatutako laguntzak Nafarroan egoitza duten eta 2013ko urtarrilaren 1a baino lehen Nafarroako [Turismo Erregistroan](#) izena emanda duten (bazkideen % 50 gutxienez turismoaren sektoreko ordezkariak izan behar dira) enpresa-elkarte turistikoei eta Nafarroan egoitza duten turismo-partzuergoei zuzendurikoak izan ziren.

22 elkartetako 118 eskaera aurkeztu dira guztira. Horietatik 107 marketin-jarduera onartu dira eta guztira 139.377,92 euro jaso dituzte.

5 partzuergotako 22 eskaera ere bidali dira; horietatik 19 onartu eta finantzatu dira 63.645,35 euroko aurrekontuarekin.